



KRONIKA.NET

ASTIGARRAGAKO SAGARDOETXEA

## Erakusketa eta dastaketa gastronomikoak, aste osoan

**Sagardogintzarekin erlazonatutako obra ezberdinak egongo dira ikusgai gaurtik abenduaren 11 bitarte, eta uzta berriko barrikoteak, gaztain eta sardin zaharrekin.**

2011/12/03 - Larunbata

astigarragako sagardoetxeak, sagardoaren kulturaren oinarritutako esperientzia gastronomiko-kulturala eskainiko du gaurtik hasita datorren igandera bitarte. hau da, sagardogintzarekin lotutako artelan ezberdinekin erakusketa bat egongo da eta horrez gain, barrikoteak antolatu dituzte sargardo berriko uztarekin, eta gaztain eta sardina zaharrek lagunduta.

### 'sagardogintzako artelanak' erakusketa, doan

sagardoetxeak eskaintzen duen erakusketan, sagardogintzarekin erlazonatutako eskualdeko artista ezberdinen obrak egongo dira ikusgai: egurrezko tailak, eskulturak, ilustrazioak, argazkiak, margolanak, bitxiak... horiek guztiak ikusteko aukera izango da eta sarrera doan da.

### barrikotea, 5 euroren truke

sagardoetxeko bisita gidatuetan, orain arte, sagardo, muztio eta likore probaketa eskaini ohi da. abenduko aste honetan, berriz, horrez gain, sagardoaren uzta berriko barrikoteak eskainiko dituzte, gaztain eta sardin zaharrekin lagunduta. guztia, 5 euroren trukean izango da.

### egun guztietan irekita

sagardoetxea, abenduko jaiegun hauetan irekita egongo da eta ordutegia goiz eta arratsaldekoa izango da, gaurtik larunbatera: 11:00etatik 13:30etara eta 16:00etatik 19:30etara. datorren igandean berriz, hau da, abenduaren 11n, goizez bakarrik egongo da irekia: 11:00etatik 13:30etara.

 Zabaldu!

[Atzera egin](#) | [Inprimatu](#) | [Norbaiti bidali](#)

**BESTE  
HEDABIDEAK**  
TOKIKOM

**GOIENA:**  
Zubirako eskaintza zabala prestatu dute Turismo bulegoek

**GOIENA:**  
Bergarako taia eskolaren aurreko ikasturteko 73 artelan Aroztegin ikusgai

**GOIENA:**  
35 urte beteta, 50era ailegatzeko esperantzan

**DOBERA BLOGAK**

**ZUBIETA-SOS:**  
Oñati eta Arrasateko Zero Zabor taldeek PSEri erantzun diote Atez Atekoa defendituz

**ZUBIETA-SOS:**  
Urriko albiste eta iritzi guztiak